

Kaixo gurasol!

Irurako haurrei eskaintza iraunkorra eskainiaz, haien haurtzaroaz gozatzeko aukera egonkorra eta etengabea bermatzea dugu haur, nerabe eta gazte zerbitzuko helburu. Horregatik, 2019-2020 ikasturteari amaiera emateko goiza pasa udaleku irekiak aurkeztera gatoz.

Haurren aisialdia 4 urterekin hasten denez hortik beherakoa "haurtzaro txikia" bezala da ezaguna. Etapa horretan familiarekiko loturak eta oinarriko estimulaziotarako sarbideak dira nagusi haurren arretan. Arrazoi honengatik, udalak **2016 eta 2017an jaiotako haurrentzat** euren etapako beharren arabera programazio bat garatuko du. Horretarako, joan zen urtean bezala, etapa honetako haurrentzat **udalerrian burutzeko ekintzak prestatuko ditugu.**

Beraz, goiza pasako **udaleku irekiak 2009-2015 urte bitartean jaiotakoekin** hasiko dira. Hauen kasuan, iaz bezala garatuko da programa. Programazioaren barruan irteerak egongo direnez, zenbait ordu aldaketa egongo dira, baina guztiak ongi zehaztuta agertuko dira programazioan.

Jakinarazi nahi dizuegu ere, kontziente garela zerbitzu honek herriarentzat duen balioaz. Horregatik, udalak, ahal dituen baliabide ekonomiko eta pertsonal guztiak jartzen ditu zuen eskura. Hemen dituzue 2019 goiza pasa udaleku irekietako datu batzuk:

| | | |
|---|-----------------------------|----------------------------|
| Parte hartzaile kopurua: | HAURRAK: 159 | NERABEAK: 64 |
| Udalak, goiza pasarako kontratatutako begirale eta zuzendari kopurua: | BEGIRALEAK: 19 | ZUZENDARIA: 1 |
| Diru sarrerak eta gastuak: | SARRERAK: 11.778,97€ | GASTUAK: 40.269,56€ |


Bestalde, **inork ordaintzeko arazoak balitu**, gizarte zerbitzuetako hobari eskaera egin beharko du Udaleko gizarte@irura.eus korreora eta eskaera onartua izanez gero kuotaren %10 ordainduko luke.

Aurten, COVID-19 birusak sortu duen osasun alarmaren ondorioz, matrikulazioa online egingo da www.irura.eus orrialdetik. Bertatik, Pdf formatuan egongo den matrikulazio orria deskargatu beharko duzue eta bete. Ondoren, matrikulazio orria goizapasa2020@gmail.com korreora bidali beharko duzue. Kontuan izan izen emate epea errespetatzea oso garrantzitsua dela kalitatezko zerbitzua mantentzeko.

Aipatu ere, udaletik goiza pasa antolatzen jarraituko dugula baina ezin dela ziurtatu uztailen zerbitzu hau aurrera eramaterik egongo den eta horrela bada antolatuturik dauden ekintzak gauzatzerik egongo diren.

Goiza pasan elkar ikusiko dugulakoan, aldezturik eskerrik asko eta ondo izan.

OHARRA: Goiza pasari buruzko informazio gehiago, orri honen atzealdean eta www.irura.eus web orrialdean. Toda la información en castellano, en www.irura.eus, mandando un correo a goizapasa2020@gmail.com o llamando al 943 69 13 33 (09:00-14:00).



| | |
|---|---|
| Izena emateko epea: | Apirilaren 29tik maiatzaren 13ra (biak barne). Online egingo da www.irura.eus orrialdetik eta bertan dagoen matrikulazio orria bete ondoren goizapasa2020@gmail.com korreora bidali beharko duzue. |
| Txanda/k: bakoitzak komeni zaion astean/asteetan izen eman dezake: | <ol style="list-style-type: none"> 1) EKAINAREN 29TIK UZTAILAREN 3RA. 2) UZTAILAREN 6TIK 10RA. 3) UZTAILAREN 13TIK 17RA. 4) UZTAILAREN 20TIK 24RA. |
| Ordutegia: | Goizeko 10:00etatik 13:00etara (irteeretarako, ordutegia alda daiteke). |
| Zaintza: | Goizeko 09:00etatik 10:00etara zaintza zerbitzua egongo da. Honen kostua seme-alaba batengatik 7€ asteko, bi seme-alabengatik 12€ asteko, eta hiru seme-alabengatik 15€ asteko izango da. Inork egun bateko zaintza behar izanez gero, aste osoa ordaindu beharko du. Irurakoak ez direnak ez dute inolako deskonturik izango. Astea haur bakoitzeko 7€ |
| Parte hartzaileak: | 2009-2017 urteen artean jaiotakoak(biak barne). |
| Prezioak: | <p>Aste 1: Iruran erroldatuta daudenak 22 €, besteek 44 €</p> <p>2 aste: Iruran erroldatuta daudenak 41,15 €, besteek 88 €</p> <p>3 aste: Iruran erroldatuta daudenak 57,75 €, besteek 132 €</p> <p>4 aste: Iruran erroldatuta daudenak 71,50 €, besteek 176 €</p> |

Familia ugariaren agiria bidaltzen dutenei %10eko deskontua aplikatuko zaie (matrikulazio orriarekin batera agiria bidaltzea beharrezkoa da). Deskontu honi, bigarren seme alabagatik, beste %10eko deskontua aplikatuko zaio, eta hiru seme-alabek izena emango balute, %15koa. Familia ugaria ez izan arren, seme-alaba bat baino gehiagok izena eman badute, deskontu bera aplikatuko da (bigarrenagatik %10). **BETI ERE HAURREN GOIZA PASAN IZEN EMANEZ GERO, ETA EZ GAZTELEKUKOEN GOIZA PASAN.** Deskontuak Iruran erroldatuak soilik izango dituzte.

KOBRAKETA UDALAK EGINGO DU ZUEK BAIMENDUTAKO KONTU KORRONTETIK.

OHARRAK:

- ✓ MATRIKULAREKIN BATERA **OSASUN TXARTELAREN** KOPIA BIDALTZEA BEHARREZKOA DA IAZ GOIZA PASAN EDO IKASTURTE HONETAN LUDOTEKAN IZENA EMAN EZ DUTENEK.
- ✓ EPEZ KANPO EKARRITAKO IZEN-EMATE ORRIAK ONARTUKO DIRA **BALDIN ETA TALDEAN PLAZARIK BADA**. ONARTUA IZANEZ GERO, **EGUNEKO 3€ko ISUNA** APLIKATUKO DA.
- ✓ IZENA EMATE ORRIA **BAT ETA BAKARRA** IZAN BEHAR DU FAMILIAKO. (HIRU SEME-ALABA BAINA GEHIAGO DAUDENEAN SALBU. KASU HAUETAN, BI IZEN EMATE ORRI BETE ETA BIAK MEZU BEREAN BIDALI)
- ✓ IZENA EMAN ONDOREN **EZ DA LUZAPENIK ONARTUKO**, BALDIN ETA EZ BADA 2017AN JAIOTAKO HAURRA.
- ✓ MATRIKULA EPEA AMAITU ONDOREN **EZ DA MATRIKULAREN DIRURIK ITZULIKO**, BALDIN ETA GAIXOTASUN EDO ISTRIPU LARRIAGATIK EZ BADA (MEDIKUAREN ZIURTAGIAREKIN), ETA BEHIN MATRIKULATU ONDOREN EZINGO DA MATRIKULATUTAKO ASTEZ ALDATU ERE.
- ✓ EGURALDIA DELA ETA **EKINTZAK ALDA DAITEZKE**. ASTE HORRETAN IRTEERA GAUZATUKO EZ BALITZ, HERRIAN, GOIZA PASAKO ZERBITZUA IZANGO DUTE IRTEERAKO ORDUTEGIA MANTENDUZ.
- ✓ IRURAN ERROLDATUTAKOEK **LEHENTASUN OSOA** IZANGO DUTE.
- ✓ **PUNTUALTASUNA** ERREGUTZEN DA, BATEZ ERE IRTEERA EGUNETAN TRENA EDO AUTOBUSA HARTU BEHAR BAITUGU.
- ✓ UDALEKUETAKO **HIZKUNTZA EUSKARA** IZANGO DA.